

Prestakuntza espezializatuari **urtean denbora gehien** eskaintzen dion finantza erakundeetako bat da

Kutxabankeko langileek 17.000 ordu eskaini zizkioten iaz jasangarritasuneko prestakuntzari

- **Banka Pertsonaleko kudeatzaile ia guztiek lortu dute inbertsio jasangarrien ziurtagiria**
- **Kutxabankeko langile guztiek Kutxabanken negozio-ereduaren funtsezkoak diren jasangarritasunari eta klima-arriskuari buruzko prestakuntza-ekintzetan parte hartu dute**

2023ko urtarrilaren 5ean. Kutxabankeko langileek **17.000 ordu** eskaini zizkioten iaz **jasangarritasuneko prestakuntzari**. Kutxabanken negozio-ereduaren funtsezko gaietako bat da, bere jardueraren eragin positiboa maximizatu nahi baitu ekonomian, gizartean eta ingurumenean.

Azken urtean egin diren aurrez-aurreko eta online heziketa-zikloen artean, nabarmentzekoa da **inbertsio jasangarrien ziurtagiria**, Bartzelonako Zuzendaritza Eskolak hiru ediziotan emandakoa, eta **Banka Pertsonaleko kudeatzaileen % 93k** gainditutakoa.

Gogoratzekoa da Kutxabank Taldearen **epe luzerako aurrezkiaren % 100**, gehienbat inbertsio-funtsak eta pentsio-planak, jasangarritasuneko irizpideen baitan sartzen dela. Izan ere, Kutxabank Gestion aitzindaria izan da lege-testuaren 8. artikulua guztiz betetzen, eta beraz inbertsio-prozesuetan ingurumeneko, gizarte-gaietako eta bidezko gobernuaren (ASG) ezaugarriak sustatzen dituzten funtsak sailkatzen.

Kutxabankek etengabe egokitzen du bere produktuen eta zerbitzuen eskaintza, geroz eta jasangarriagoak diren negozio-eredu eta bizi-estiloen eskari handiagoari erantzuteko. Aldi berean, finantza-inklusioa sustatzeko konpromisoa hartzen du irisgarritasunaren ikuspegitik. Horregatik, eskari horri guztiari erantzuteko gero eta beharrezkoagoa da langileen prestakuntza **ingurumen eta gizarte gaietara egokitzea**.

Horregatik, **langile guztiek** parte-hartu ahal izan dute jasangarritasunari eta klima-aldaketari buruzko prestakuntza-ekintzetan. Beste arlo batzuek, hala nola **Auditoriakoak, Handizkako Bankakoak edo Kutxabanken aseguru-eskaintzakoak** ere ESG gaiei buruzko prestakuntza-programa espezifikoeetan parte hartu dute.

Kutxabank etengabeko hobekuntzara **urtean ordu gehien** eskaintzen dituen finantza-erakundeetako bat da, talentua sustatu eta atxikitzeko asmoarekin, bai eta bikaintasuna eta motibazioa bultzatzeko ere. Datu honek erakusten du Kutxabankek eta bere giza taldeak pertsonen garapen profesionala sustatzeko duten konpromisoa.